


GATAZKAREKIKO SENTIKORRA DEN LANKIDETZARAKO GIDAK

Biktimen eta giza eskubideen
defendatzaileen babesa.
Nazioarteko erkidegoak duen
akonpainamendu-betebeharra
betetzeko erronkak

Anabella Sibrián, Carlos Martin Beristain



Biktimen eta giza eskubideen
defendatzaileen babesa.
Nazioarteko erkidegoak duen
akonpainamendu-betebeharra
betetzeko erronkak

Anabella Sibrián, Carlos Martín Beristain*

* **Anabella Sibrián:** giza eskubideen defendatzailea eta Inpunitatearen aurkako Nazioarteko Plataformaren zuzendaria da.

Carlos Martín Beristain: medikua eta psikologian doktorea da eta hainbat herrialdetan biktimekin eta giza eskubideen defendatzaileekin lan egin du. Gaur egun, Kolonbiako Egia argitzeko, Bizikidetzako eta Ez Errepikatzeko Komisioko (Comisión de Esclarecimiento de la Verdad, la Convivencia y la No Repetición) ordezkaria da.

Gida hau GLEAK finantzatutako proiektu honen markoan egin da: “Construcción de la Paz Crítica: marco conceptual y metodológico para una cooperación vasca sensible al conflicto”
(Bake Kritikoaren Eraikuntza: gatazkarekiko sentikorra den euskal lankidetzaren baterako marko kontzeptual eta metodologikoa), PRO2016K3010.



Biktimen eta giza eskubideen defendatzaileen babesa.
Nazioarteko erkidegoak duen akonpainamendu-betebeharra betetzeko erronkak

Egileak: Anabella Sibrián, Carlos Martín Beristain

www.hegoa.ehu.eus

hegoa@ehu.eus

UPV/EHU

Zubiria Etxea eraikina

Lehendakari Agirre Etorbidea, 81

48015 **Bilbo**

Tel.: 94 601 70 91

Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar Enparantza, 2

20018 **Donostia**

Tel.: 943 01 74 64

UPV/EHU

Campuseko Liburutegia

Nieves Cano, 33

01006 **Vitoria-Gasteiz**

Tel.: 945 01 42 87

Faxa: 945 01 42 87

Berrikuspena: Itziar Mujika Chao

2019ko urtarrila

Diseinu eta maketazioa: Marra Servicios Publicitarios

Itzulpena: Iñigo Gallastegi Zorrilla

Inprimaketa: Gráficas Ingugom

L.G.: BI-720-2019

ISBN: 978-84-16257-36-2



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorrikGabe 4.0 Espainia

Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik beste bat eratorri. Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Laburpena

Giza eskubideen defentsa jarduera etikoa eta politikoa da eta, orokorrean onartutako estandarretan oinarrituz, boterearen gehiegizko erabilera zalantzan jartzen du. Hala, azken bi hamarkadetan giza eskubideak babesteko nazioarteko tresnak garatu diren arren, eskubide horiek defendatzen dituzten pertsonak errepresaliak pairatzen ari dira. Beraz, giza eskubideak defendatzeak, gero eta gehiago, defendatzaileak babestea, mehatxuen eta erasoen ondorioak lantzea eta prozesu indibidual eta kolektiboak sendotzea eskatzen du. Gida honek, bada, azterketa dokumentala erabiliz eta laguntza esperientziak aztertuz, hainbat herrialdeko erakundeek, komunitateek eta lidergoek aurrean dituzten erronka nagusiak landu nahi ditu. Era berean, kondizio gogorretan giza eskubideak modu indibidual edo kolektiboan defendatzen dituzten pertsonak laguntzeko beharra betetzeari dagokionez, nazioarteko erkidegoaren papera landu nahi du gida honek.

Hitz gakoak

Giza eskubideak; biktimak; giza eskubideen defendatzaileak; nazioarteko lankidetzak.

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Giza eskubideen defentsa eta bakegintza	7
3. Diskurtsotik praktikara: nazioarteko babes mekanismoak	10
4. Babesa zeren aurrean: Zeintzuk dira defendatzaileek pairatzen dituzten mehatxuak?	12
5. Defendatzaileen kontrako ekintzen ondorioak	15
6. Inpaktua eta autobabeserako neurriak	18
7. Giza eskubideen defendatzaileak laguntzean egindako ikaspenak	20
8. Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak babesteko gomendioak	21
8.1. GGKEen eta nazioarteko elkartasunaren papera	21
8.2. Giza Eskubideen Erakunde Nazionalen papera	22
8.3. Eskualdeko Sistemen papera Sistema Unibertsalarekin elkarlanean	23
8.4. Europar Batasunaren papera: Zer espero dute giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak eta komunitateak?	24
8.5. Defendatzaileak babesteko lanak	24
Bibliografia	29

1. Sarrera

Giza eskubideen aldeko borroka lorpen kolektibo bat da. Hori hainbat dokumentutan, deklaraziotan, instituziotan eta nazio mailako eta nazioarteko auzitegien epaitan gauzatu da. Hala, aintzatespen sozial eta juridikoko modu horietako askok Nazio Batuen Erakundearen akordioak edo ebazpenak ekarri dituzte. Herrialdeek, bada, akordio horiek betetzeko konpromisoa hartu dute baina horiek betetzetik oso urrun daude. Beste alde batetik, giza eskubideak nortasunaren balioa handitzeko modu bat dira. Izan ere, 1993an Mexikoko hegoaldean gerrako biktimekin eta bizirik dirautenekin egindako lanean, Guatemalara itzultzear zeuden emakume maiek honako alde hau azpimarratzen zuten: *orain badakigu eskubideak ditugula*. Eta, hain zuzen, kontzientzia hori ez da sineskeria hutsa, berrespen indibidual eta kolektiboa baizik.

2018an, 70 urte egin ziren Nazio Batuen Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zuenetik eta 20 urte Giza Eskubideen defendatzaileei buruzko Deklarazioa onartu zenetik. Hala, denboraldi horretan, zenbait neurri sustatu eta inplementatu dituzte mundu osoan zehar, deklarazio bi horiek egia bihurtzeko helburuz.

Hiritarren aurrean Estatua da behartuta dagoen eragile nagusia. Hala ere, nazioarteko erkidegoak ere paper laguntzaile, osagarri eta saihetsezina du. Gida hau, bada, giza eskubideen defentsaren eta bakegintzaren arteko harremanaren inguruko zenbait hausnarketatik abiatzen da. Hala, gidak giza eskubideak eta horiek kondizio gogorretan erabiltzen dituzten pertsonak defendatzeko eskubidea babestu nahi dituzten nazioarteko mekanismo nagusiak berrikusten ditu.

Bestalde, desberdintasun eta indarkeria testuinguruetan bizitza defendatzea ez da inoiz erraza izan. Azken hamarkadetan, bada, giza eskubideen defentsa jarduera arriskutsu bilakatu da. Izan ere, defendatzaileen kriminalizazioa, mehatxuak, salbuespeneko legeak eta judizializazioa, jazarpena eta hilketak ohiko praktikak izatera heldu dira. Latinoamerika, bada, giza eskubideen defendatzaile gehien hiltzen dituzten eskualdea da. Izan ere, Brasilen, Kolonbian, Hondurasen edo Guatemalan, besteak beste, giza eskubideen eta naturaren defendatzaileak arbuioaren helburu bilakatu dira. Nolanahi ere, estatistikek hildakoak zenbatzen dituzte, baina inpaktuak askoz harago doaz eta terrore eta kontrol modu berrietan islatzen dira. Kasu gehienetan, bada, krimen horiek eskubideen defentsa sorrarazi zuen inpunitate beraren emaitza dira.

Hortaz, eraso horien salaketa borrokaren bigarren lerro bilakatu da, hau da, defendatzen dutenen defentsa. Defendatzaileek, sindikalisten eta erauzketa proiektuen biktima diren komunitateen artean, beren kontzepzioa zabaldu eta beren buruari buruz hausnartu dute baina, aldi berean, ezkutuko arriskuak eta inpaktuak ugaritu dira. Nazioarteko zenbait Gobernu Kanpoko Erekuendek (GKE) eta herrialde desberdinetako zenbait instituziok defendatzaileak arrisku larriko leku edo herrialdeetatik ateratzeko proiektuak martxan jarri

dituzte. Praktikak, bidaiak, birak edo erbestealdiak borroka horien difusioaren hizkuntza berriaren parte dira. Era berean, itzultzea arrisku berri bat denean, lidergo hori alde batera utzi behar izaten da. Familiengan sortzen diren inpaktuak, lekualdatzeak, profila jaistearen norbere burua babesteko, profila igotzea erasoaren kostu politikoa handitzeko. Kontzeptu berrien bitartez, zaindu eta bistaratu beharreko alderdiak zeintzuk diren ikasi dugu.

Azken hamarkadetan, defendatzaileen kontrako indarkeria ereduak interes pribatu eta publiko desberdinen ondorio izan dira. Hala, estatuaren erantzukizuna lausotzeko saiakera bat dago. Kasu horietan, inpunitatea mantentzea indarkeria eredu horien parte da. Borroka horiek defendatzaileengan dituzten ondorioak beren familiengan metatzen dira; hau da, beldurra, gainkarga emozionala edo zatitzeko eta erresistentzia hausteko saiakerak. Dimentsio bikoitz hori, juridikoa eta psikosoziala, laguntza eta sendotze kolektibokoa, defendatzaileen eta horien lana babesten duten horien agendaren parte da. Beraz, gida hau ikaspen partekatuei eta bizitza defendatzeko tresnei buruzkoa da.

2. Giza eskubideen defentsa eta bakegintza

Giza eskubideak defendatzea kontu politikoa da. Historian zehar, eskubideak aldarrikatzea, horiek ofizialki onartuak izan ala ez, funtsezkoa izan da justizia eta bakea bilatzean. Hala, bidegabekeriak salatzeak eta boterea kontrolatzeko eta bizikidetzak baketsua sustatzeko bestelako arauen aldeko borrokak nazio mailako aldaketak lortzeko baldintzak sortu dituzte, gero nazioartean ere errepikatu direnak. Oraindik orain, giza eskubideen diskurtsoak, bere irismen eta mugekin, “unibertsaltasun” izaera bat izan du. Joan den mendearen amaieraz geroztik unibertsaltasun hori giza eskubideak defendatzeko eskubidera ere zabaldu da. Onarpen hori 1998 baino lehenagokoa da, nahiz eta urte horretan onartu giza eskubideen defendatzaileei buruzko Deklarazioa.

Helsinki ospatutako Europako Segurtasunari eta Lankidetzari buruzko Konferentziaren (ESLK)¹ amaierako Aktan, parte hartutako Estatuak beren artean harreman hobekak sustatzeko helburua berretsi zuten, beren herrialdeak “benetako bake iraunkor batean” bizitzeko baldintzak lortzeko helburuz; giza eskubideen eta funtsezko askatasunen balio unibertsala onartu zuten, horiek bakearen, justiziaren eta ongizatearen funtsezko faktoreak diren neurrian; eta pertsonak “beren eskubideak ezagutzeko eta erabiltzeko” eskubidea berretsi zuten (CSCE, 1975: 2 eta 5. orr.).

Baina ez zen 1998ko abenduaren 9ra arte izan, 14 urtez eztabaidatu ondoren eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 50. urteurrenean, NBEren Batzar Nagusiak Mundu osoan aitortuak diren giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak sustatzeko eta babesteko, norbanakoek, taldeek eta erakundeek dituzten eskubide eta eginbeharrari buruzko Deklarazioa (A/RES/53/144) onartu zuela. Hori, normalean, Giza eskubideen defendatzaileei buruzko Deklarazioa izenaz ezagutzen da.

Deklarazioa aho batez onartu zen eta, bere lehenengo artikulutik ere, oso modu zabalean idatzita dago². Beraz, ez du aukera ematen giza eskubideen defendatzaileak nortzuk diren modu murriztailean interpretatzeko. Izan ere, Deklarazioak, banan-banan aipatu

1 Europako Segurtasunari eta Lankidetzari buruzko Konferentzia (ESLK), 1973ko uztailaren 3an inauguratu zen Helsinkin. 1973ko irailaren 18tik 1975ko uztailaren 21era jarraipena eman zitzaion Genevan eta, azkenik, 1975ko abuztuaren 1ean amaiera eman zitzaion Helsinkin. Garai hartan NBEko Idazkari Nagusia zen Kurt Waldheimek parte hartu zuen bai hasieran bai itxieran.

2 Ikus Deklarazioaren 1. artikulua: “Edozein pertsonak eskubidea du, indibidual edo kolektiboki, giza eskubideak babesten eta gauzatzen direla sustatzeko eta bermatzeko, nazio mailan zein nazioartean”.

beharrean –norbait kanpoan uzteko arriskuarekin– giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak eta kolektiboak beren jardueraren arabera onartzen ditu; testu osoan zehar horien lanaren legitimitatea, horiek giza eskubideen erabileran duten funtsezko rola eta bakeari egiten dioten ekarpena azpimarratzen ditu.

Hala, 2000ko abuztuan, berriro ere, giza eskubideen defendatzaileen paperaren aintzatespena eman zen, NBEko Idazkari Nagusia zen Kofi Annanek Batzar Nagusiaren aurrean ondoko hau adierazi zuenean: “giza eskubideen defendatzaileek honako hauetan laguntzen dute: baldintza sozial, politiko eta ekonomikoak hobetzen; nazio mailan zein nazioartean ingurune baketsua sortzen; eta giza eskubideen inguruan nazioko eta nazioarteko erkidegoaren interesa sustatzen” (A/55/292, 5. paragrafoa).

Deklarazioak eta giza eskubideak defendatzeari buruzko ondorengo dokumentuek jarduera hori babestu beharrekotzat onartzeko oinarriak jarri dituzte. Izan ere, Idazkari Nagusiak berak ere aitortu zuen bezala, dokumentuek defentsa hori egiten dutenek hainbat arrisku pairatzen dituztela aitortzen dute.

“Bizitzaren, segurtasun fisikoaren eta segurtasun eta duintasun pertsonalen aurkako eraso zuzenak edota indarkeria modu zorrotzagoak eta, maiz, hedatuagoak; esaterako, giza eskubideen eremuan lan egitea delituzko ekintzekin lotzea, jarduera horren izen ona galarazteko helburuz (...). Elkartze, biltze, informazio eta zirkulazio askatasunen gaineko murrizpen juridikoak erabiliz giza eskubideen eremuko jarduerak ilegal bihurtzen dituzte. Era berean, errepresio juridikoa eta fisikoa erabiltzen dute giza eskubideen aldeko jarduerak oztopatzeko” (A/55/292, 6. paragrafoa).

Beste alde batetik, Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordeak, Guatemala bisitatu ondoren, kolektibo eta pertsona defendatzaileek zuzenbidezko estatua indarrean izateko eta demokrazia indartzeko duten protagonismoa azpimarratu du. Izan ere, bidegabekeriak publikoki salatzen dituzte eta herritarrek funtzionarioak eta instituzioak kontrolatu ahal izatea sustatzen dute. Hortaz, defendatzaileak “gizarte demokratiko sendo eta iraunkor bat eraikitzeke ezinbesteko pieza” direla ere esan da (CIDH, 2003: 8. paragrafoa). Hor, bada, defendatzaileen beste rol bat aipatzen da, hain zuzen, estatuaren ustelkeria handiko testuinguruetan garatzen duten hori.

Hainbat epaitan, Amerika arteko Auzitegiak giza eskubideen defendatzaileen lanaren eta horiek babestearen garrantzia nabarmendu du. Horietako batean, hain zuzen ere, honako hau adierazten du: “Estatu demokratiko batean giza eskubideak errespetatzea, neurri handi batean, giza eskubideen defendatzaileek beren jardueran duten berme efektibo eta egokien menpe dago” (Giza Eskubideen Amerika arteko Auzitegia, 2009: 145. paragrafoa). Beste epai batean hau argitzen du: “neurriek, egokiak izateko, pertsonaren arrisku egoerari aurre egiteko aproposak izan behar dute eta, eraginkorrak izateko, bilatzen dituzten helburuak lortzeko gai izan behar dute” (Giza Eskubideen Amerika arteko Auzitegia, 2014: 157. paragrafoa).

Era berean, Giza eskubideen defendatzaileei buruzko Deklarazioak, bere hitzaurrean eta 2., 9. eta 12. artikuluetan, Estatuak giza eskubideen defendatzaileak babestu behar dituztela ezartzen du; babes horren barne prebenitzeko, ikertzeko eta zigortzeko betebeharra dutela ulertuz. Beraz, argi adierazten du Estatuak, giza eskubideak defendatzeko eskubidea errespetatu eta bermatzeaz gain, estatuko eta estatuz kanpoko eragileen aurrean eskubide hori erabiltzen duten pertsonak babestu behar dituztela, nazio mailan zein nazioartean. Betebehar hori Estatu bakoitzak bere lurraldean dauden gizabanako guztiak inolako bereizketarik gabe babesteko beharretik sortzen da. Izan ere, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak hori jasotzen du.

Beraz, argi utzi behar dugu Estatuak giza eskubideak defendatzeko eskubidea errespetatu eta bermatzeaz gain, eskubide hori erabiltzen duten pertsonak nazio mailan eta nazioartean babestu behar dituela³.

Duela gutxi, 2017ko martxoan, NBEren Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak “Giza eskubideen eta eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen defendatzaileak” deklarazioa eman zuen. Horretan adierazten denaren arabera, eskubide horiek defendatzen dituzten pertsonak edo taldeak “funtsezkoak dira giza eskubideen urraketak detektatzeko eta, giza eskubideak eta Itunean onartutako gainontzeko eskubideak erabiltzeari dagokionez, agintariei beren ekintzen ondorioak edo ez-egiteak seinaltzeko”. Hala ere, eta horrexegatik agian, “maiz, horiek arriskuan eta mehatxupean egoten dira beren lanagatik” (E/C.12/2016/2; 3. eta 4. paragrafoak).

3 Eta hori Margaret Sekaggya Giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruzko Errelatore Bereziak NBEren Batzar Nagusiaren aurrean errepikatu zuen, 2010eko abuztuaren 4an (A/65/223).

3. Diskurtsotik praktikara: nazioarteko babes mekanismoak

2000. urtean, NBERen Giza Eskubideen Batzordeak giza eskubideen defendatzaileei buruzko Errelatore berezi bat izendatzea eskatu zion Idazkari Nagusiari. Errelatoreak giza eskubideak mundu mailan duten egoera ikuskatzeaz eta horri buruzko informazioa biltzeaz arduratu behar zuen, baita Deklarazioa aplikatzen laguntzeaz ere. Horrez geroztik, ondoko hauek izendatu dituzte mandatu horren titular: Pakistaneko Hina Jilani jurista eta aktibista (2000-2008), Ugandako Margaret Sekkaggya abokatua eta epailea (2009-2014) eta Frantziako Michel Forst abokatua eta aktibista (2014tik gaur arte).

Errelatoreak giza eskubideen defendatzaileek munduan duten egoera dokumentatzen du. Horretarako, eskualde horietara egindako bisitetan lehen eskuko informazioa biltzen, mundu mailako ikerketak eta kontsultak egiten, eta defendatzaileek berek eta NBERen Giza Eskubideetarako Goi Mandatariaren bulegoek egindako salaketen inguruko informazioa biltzen du. Gainera, gobernuei eta nazioarteko erkidegoari zuzendutako gomendioak ematen ditu, horiek arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileak babesteko neurri espezifikoak har ditzaten.

2004an, Europar Batasunak (EB) hainbat gidalerro ezarri zituen “Babesa bermatu - Giza eskubideen defendatzaileei buruzko Europar Batasunaren gidalerroak” izenpean. Gidalerro horiek ezarri eta 2008an berrikusi zituen, babesteko helburu nagusiari dagokionez emaitza hobekia lortzeko helburuz. Horretarako, EBren misio diplomatikoak eta Estatu kide guztiak tartean sartzen dituzten neurriak erabiltzen ditu. Hala, EBren gidalerroek hau gomendatzen dute: giza eskubideen defendatzaileekin bilerak -maila altuenean- egitea, arriskuko egoerak identifikatzea, giza eskubideen egoera elkarrizketa politikoan sartzea, Demokraziarako eta Giza Eskubideetarako Europako Tresnaren (DGEET) bitarteko diru laguntza, eskualde guztietan babes politikak garatzeko lankidetzak eta giza eskubideen eskualdeko mekanismoak sustatzea.

Hala, EBren Gidalerroak onartu ziren urte berean, Banjulen (Gambia) egindako 35. saioaldian Giza eta Herri Eskubideen Afrikako Batzordeak giza eskubideen defendatzaileek Afrikan pairatzen zuten arrisku gero eta handiagoagatik kezka adierazi zuen. Hortaz, giza eskubideen defendatzaileei buruzko Errelatoretzat sortu zuen kontinente horretan. Horrek honako helburu hauek ditu: defendatzaileen egoerari buruzko informazioa bilatzea, biltzea eta aztertzea eta horren gainean jokatzeko; txostenak egitea; Giza Eskubideen Nazioko Erakundeekin eta eskualdeko eta nazioarteko babes mekanismoekin lan egitea; eta babesteko estrategia eraginkorrek gomendatzea (ACHPR, 2004: 1. paragrafoa).

2006. eta 2011. urteetan Giza Eskubideen Amerika arteko Auzitegiak Defendatzaileek Ameriketara duten Egoerari buruzko txostenak argitaratu zituen. Horiek, bada, defendatzaileek eskualdean pairatzen dituzten arazo nagusiak deskribatzen dituzte, hala

nola, atentatuak, mehatxuak, ospe-galtze eta kriminalizazio kanpainak; eta Estatuak duten babesteko beharrari buruzko azterketa zabaltzen dute (OEA/Ser.L/V/II. Doc. 5 rev.1 eta OEA/Ser.L/V/II. Doc. 66).

Era berean, 2010ean, Norvegiako Kanpo Harremanetarako Ministerioak defendatzaileen babeserako gidalerroak argitaratu zituen (Norvegiako Kanpo Harremanetarako Ministerioa, 2010). Dokumentu horretan Ministerioak babes premia larria dagoen kasuetarako egiaztapen zerrenda bat ematen du. Horren helburua diplomatikoei orientazioa ematea da, arriskuan dagoen defendatzaile baten kasua ebalua dezaten eta horri modu egokian erantzun diezaioten.

Beste eskualde batzuek ezarritako joerari jarraituz, 2011ko martxoan, Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordeak, bere 141. saioaldian, giza eskubideen defendatzaileei buruzko Errelatoretza sortu zuen. Horretarako, gai horren inguruan lan egiten zuen unitate batetik abiatu zen. Errelatoretzak, bada, Amerikako kontinentean giza eskubideak defendatzen dituzten pertsona guztien egoerari jarraipena ematen dio, justiziaren sektoreko funtzionarioak barne.

2013an, Suitzak ere giza eskubideen defendatzaileen babeserako gidalerro batzuk argitaratu eta mundu osoan zituen misio diplomatikoen artean banatu zituen. Aurreko gidalerroekiko alde nagusietako bat da berri horiek gobernuak kanpoko eragileen ardurak modu esplizituan aipatzen dituztela. Hala, honako hau azpimarratzen dute: “enpresak modu arduratsuan kudeatzen ez diren bitartean, horien interes ekonomiko pribatuak eragin negatiboak izan ditzakete giza eskubideengan eta, batez ere, eskubide sozioekonomikoengan”. Aldi berean, Suitzako Estatuaren jarduerak koherentea izan behar duela azpimarratzen dute (DFAE, 2014: 10. orr.). Hala, lanketa horrek giza eskubideen defendatzaileek munduko hainbat eskualdeko europar misio diplomatikoei egiten dizkieten bi eskaera erreskatatzen ditu. Horiei, normalean, ez zaie behar adina arreta ematen; izan ere, misio horiek paper bikoitz bat izan ohi dute -askotan kontraesankorra dena-, hau da, negoziokoak eta giza eskubideak sustatzea.

Era berean, 2016an, Europako Segurtasun eta Lankidetzako Antolakundeko (ESLA) Erakunde Demokratikoen eta Giza Eskubideen Bulegoak giza eskubideen defendatzaileei buruzko gidalerro batzuk argitaratu zituen. Dokumentuak, bada, giza eskubideen defendatzaileen aurkako ekintza kategoriatan desberdinak zehaztasun handiagoz lantzen ditu, hala nola, mehatxuak, erasoak, jazarpen judiziala, penalizazioa, atxiloketa arbitrarioak, estigmatizazioa eta marjinalizazioa. Gainera, “ingurune seguruak eta egokiak sortzeko helburua duten neurri praktikoak” garatzen ditu, “giza eskubideen defendatzaileek beren jarduerak modu askean eta behar bezalako mugarik gabe egin ditzaten ahalbidetzen dituztenak, eta horien artean, hirugarren batekin bakarka eta kolektiboki egindako lana, nazio mailan zein nazioartean” (ESLA/EDGEB, 2016).

**Desberdintasun eta indarkeria
testuinguruetan bizitza
defendatzea ez da inoiz erraza
izan. Azken hamarkadetan, bada,
giza eskubideen defentsa jarduera
arriskutsu bilakatu da.**

4. Babesa zeren aurrean: zeintzuk dira defendatzaileek pairatzen dituzten mehatxuak?

2014. urtean, Ban Ki-moon NBEko idazkari nagusiak giza eskubideen egoerari buruzko Errelatore Bereziaren txosten bat aurkeztu zion Batzar Nagusiari. Ban Ki-moonek aipatu zuenez, Errelatore Bereziarentzat harrigarria izan zen hainbatetan bere arreta funtsezko eskubideak eta askatasunak defendatzeagatik arrisku egoeran dauden taldeengana erakarri izana. Hain zuzen ere, honako hauek aipatu zituen: “eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak eta gutxiengoen eskubideak defendatzen dituzten pertsona horiek, ingurumenaren defendatzaileak, pertsona lesbiana, gai, bisexual, transgenero eta intersexualen eskubideen defendatzaileak, emakume defendatzaileak eta emakumeen eskubideen alde lan egiten dutenak, enpresen eta eskubideen gaiaz arduratzen direnak, barne gatazkak eta hondamendi naturalak izateko arriskua duten lekuetan lan egiten dutenak, eskualde aldenduetan bizi direnak edo iraganean egindako urraketez arduratzen direnak” (A/69/259, 48. paragrafoa). Era berean, Errelatoreak, 2017ko txostenean, hau aipatzen du marko geografikoari dagokionez: “Latinoamerika eta Asia izan dira giza eta ingurumen eskubideen defendatzaileentzako eskualde latzenak” (A/71/281, 34. paragrafoa); izan ere, desberdintasunak eta botere ekonomikoen eragina eman dira, beste hainbat faktoreren artean.

Orokorrean, estatuko eta estatuz kanpoko hainbat eragile giza eskubideen defentsa mugatzen saiatzen dira mekanismo desberdinen arabera. Hala, mekanismo horiek inpaktu desberdinak dituzte gizon eta emakume defendatzaileengan:

- a) **Defendatzaileen bizitzaren eta segurtasun fisiko eta psikologikoaren aurkako ekintzak.** Kategoria horretan mehatxuak, larderia, erasoak edota hilketak ditugu. Emakume defendatzaileez ari garenean, aipatutako horiez gain, generoko indarkeria dugu. Gainera, gertakariak zigorrik gabe geratzen direnean, eragina are handiagoa da eta beste defendatzaile batzuetara heda daiteke. Hala, munduko hainbat eskualdetan giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak eta kolektiboak aipatzen dutenaren arabera, zenbait eragile pribatuk, enpresak barne, indarkeriazko ekintzetan parte hartzen dute, estatuko agintarien partaidetza aktibo edo pasiboarekin. Hala, bereziki kezkarria da segurtasun enpresen papera; izan ere, maiz, horien artean egitura militarretan parte hartu duten eta defendatzaileak zelatatzeke eta beldurra eragiteko gaitasuna duten eragileak aurkitzen ditugu.
- b) **Difamazioa, estigmatizazio publikoa eta deslegitimazioa.** Horiek, defendatzaileen sinesgarritasunari azpijana eginez, beren lana ahultzeko beste estrategia bat osatzen dute. Orokorrean, difamazioak eta estigmatizazio publikoak inteligentzia, informazio, komunikazio eta iritzi publikoa maneiatzeko gaitasunak eskatzen dituzte. Kanpaina horiek, beraz, kulturaren errotuta dauden beldurrak eta aurreiritziak baliatzen dituzte pertsona defendatzaileen kontra erabiltzeko. Gainera, zenbait herrialdetan konnotazio arrazistak edo generoko bazterkeriakoak ere erabiltzen

dituzte. Esaterako, emakume defendatzaileak etxearen eremutik ekintza publikoaren eremura irteteagatik kritikatzeko dituzte; beraien morala zalantzan jartzen da eta horrexegatik abusuak pairatzeko arrisku handiagoa dute, erakundeko kideen eta senideen eskutik ere. Askotan, defendatzaileen kontrako kanpainak ez dute argudio arrazionalik eta informatu gabeko jendearen emozioetara zuzentzen dira, horiek ez baitute giza eskubideei buruzko ezagutza-oinarri sendoa.

- c) **Adierazpen eta iritzi askatasuna mugatzea.** Demokrazia ahuletan eta diktaduretan giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen adierazpen eta iritzi askatasuna mugatzeko helburuz, gobernuek hedabideetarako eta prozedura zibil edo penaletarako sarbidea murrizten diete estatuaren eta estatuz kanpoko sektore boteretsuen interesen kontrako iritziak adierazten dituzten horiei. Oraindik orain, Amerikan eta Europan, segurtasun publikoari buruzko lege proposamenak sustatu dira, arbitrariotasun abagunea ematen dutenak. Horiek gobernuen⁴ edo enpresa boteretsuen jardueren inguruan kritikak adierazten dituzten horiek jazartzeko erabiltzen dira. Muturreko kasuetan, inprimatzea eta argitaratzea mugatzen eta hedabideak eta egunkariak zentsuratzen, geldiarazten eta ixten dituzten legeak ere aldarrikatzen dituzte.
- d) **Tokiko zaintza eta kontrola.** Hauen bitartez ematen da: militarizazioa, segurtasun enpresa pribatuen presentzia handia eta -zenbait kasutan- intelijentzia zerbitzuak, estatukoak eta paraestatalak. Muturreko kasua salbuespen egoerako testuinguruetan ematen da, non pertsonak eta komunitateek, giza eskubideak defendatzeak dakarren mehatxuaren aurrean, agintariek inbertsioaren interesak babestea erabakitzen duten. Informatutako kasu batzuetan estatuaren segurtasun indarrei ostaturik, elikagaiak, informazioa edota aginduak enpresen lurretan ematen zaizkie⁵. Testuinguru horietan difamazio kanpainak ematen dira, eskubideak defendatzen dituzten pertsonen izena zikintzeko helburua dutenak. Horiez gain, defendatzaileen kanporaketa biolentoak, jazarpena, emakumeen sexu bortxaketak, kriminalizazioa eta atxiloteta arbitrarioak ere ematen dira.
- e) **Elkartze askatasuna mugatzea.** Azken hamar urteotan, giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeak sortzeko eta erregistratzeko oztopoak jarri bitartez elkartze askatasuna mugatzeko joerak gora egin du. Hala, legeak aldatzen edo lege berriak ematen dituzte, gizarte zibileko erakundeen jarduerak ongintzara eta zerbitzuak ematera mugatuz. Horrela, bada, giza eskubideak sustatzen eta defendatzen dituzten eta Estatuari kontuak ematea eskatzen dioten erakundeen legitimitatea ukatzen dute. Marko juridiko murriztaile horien ondorioz, erakundeen jazarpen administratibo eta judiziala edota banatze prozesuak ematen dira, besteak beste.

⁴ Horren inguruan, Giza Eskubideen Batzordeak, iritzi eta adierazpen askatasunari buruzko 34. Ohar Orokorrean, kide diren Estatuak kontuz jokatzera deitzen die, segurtasun nazionalari buruzko xedapenen diseinuak eta aplikazioak iritzi eta adierazpen askatasuna bermatzen dutela bermatzeko.

⁵ Horren adibide bat da Guatemalako San Rafael Las Floresen dokumentatutako kasua (Solano, 2015).

- f) **Protestarako eskubidea murriztea.** “Modu baketsuan biltzeko eskubidea funtsezkoa da giza eskubideen defendatzaileentzat. Eskubide hori eta Estatuaren funtzionarioek eta estatuz kanpoko erakundeek egindako urraketan aurrean babesa bermatu barik, erabat murrizten da defendatzaileek giza eskubideak eta funtsezko askatasunak babesteko eta sustatzeko duten ahalmena” (A/66/203: 21. paragrafoa). Izan ere, gero eta gehiago, irizpide arbitrarioetan oinarritutako baldintza eta debekuen bitartez eskubide hori murrizten dute. Hala, legeak ez dira giza eskubideen nazioarteko arauetara egokitzen eta nazio mailan ez dago protestarako baimena ukatzen duten erabakiak apelatzeko baliabiderik (A/66/203: 54. paragrafoa). Europan zein Amerikan, terrorismoaren kontrako borrokarako hainbat lege modu bidegabean erabiltzen dira manifestatzaileen aurka. Era berean, lege antiterroristak maputxeen kontra erabili izan dira Txilen edo giza eskubideen defendatzaileen kontra Kolonbian.
- g) **Kriminalizazioa.** Kriminalizazioa kolektibo eta pertsona defendatzaileen kontrako prozesu judizialen bitartez gauzatzen dute. Hala, funtsezko eskubideak eta askatasunak mugatzen dituzten legeak erabiltzen dituzte edota jazarriei ez dagozkien figura penalak leporatzen zaizkie. Izan ere, kriminalizazioa garatzen den testuinguruetan, botere faktikoek kontrol edo eragin handia dute justizia sisteman, bai aurkariak jazartzeko eta bai beren ekintza kriminalen inpuniatea mantentzeko⁶. Legeak, beraz, botere talde horien interesen arabera egiten dira eta Estatuak gogortasunez aplikatzen dizkiete lege horiek botereen interesak mehatxatzen dituztenei. Horregatik, bada, preso hartutako defendatzaile kriminalizatuak “preso politikotzat” hartzeko joera sortu da mundu mailan; izan ere, horien ustezko delituak boterearen aurrean eskubideak defendatzea da.

Beste alde batetik, NBERen Defendatzaileei buruzko Deklarazioak honako eskubide hauek aldarrikatzen ditu: babeserako eta errekurso eraginkorra jartzeko eskubidea (2. eta 9. artikulua), biltzeko askatasuna (5. eta 12. artikulua), elkartze askatasuna (5. artikulua), nazioarteko organismoekin komunikatzeko eskubidea (5 (c) eta 9 (4) artikulua), iritzi eta adierazpen askatasuna (6. artikulua), protestarako eskubidea (5 (a) artikulua), giza eskubideen arloan eztabaidatzeko eta ideia berriak garatzeko eskubidea (7. artikulua) eta baliabideak izateko eskubidea (13. artikulua). Hala ere, maiz, Estatuak, bide administratiboak erabiliz, eskubide horien erabilera murrizten, debekatzen eta eragozten dute eta, indarra erabiliz, horiek zapaltzen dituzte. Errealitate horren aurrean, beraz, defendatzaileek eta gizarte mugimenduek beren burua berrasmatzen dute eta giza eskubideak defendatzen jarraitzeko liskar estrategikoko antolaketa ekimenak abiatzen eta aliantzak sortzen dituzte.

⁶ Herri indigenen eskubideen defendatzaileen kriminalizazioa mundu osoan ematen da. Victoria Tauli-Corpuz NBERen Errelatore Bereziak horri buruz egindako txosten batean azaltzen duenez, hori ematen da batez ere “buruzagi indigenek eta komunitateetako kideek tamaina handiko proiektuen aurka agertzen direnean; erauzketa industriei, nekazaritza industriari, azpiegiturei, presa hidroelektrikoei eta baso-mozketari dagozkienak” (A/HRC/39/17: 28. paragrafoa).

5. Defendatzaileen kontrako ekintzen ondorioak

Atal honetan, lehen aipatutako ekintzek eskubideak defendatzen dituzten komunitate eta pertsona horiengan dituzten ondorioei arreta berezia jarriko diegu.

Defendatzaileen bizitzaren eta segurtasun fisikoaren aurkako erasoek konpondu ezinako kalteak sortzen dituzte biktimengan eta beren familia eta komunitateengan. Izan ere, gizabanako bati egindako kalteak komunitate osoari eragiten dio. Krime horietako gehienetan ematen den inpunitateak, beraz, bidegabekeria egoera luzatzen du, María Beatriz Gentilek azaltzen duen bezala (2013: 27). Horrez gain, inpunitateak isiltasunezko estalkia ezartzen du eta delitu gehigarri bat da, askotan, sistematikoa eta jarraitua dena.

Difamazio jardueren ondorioei dagokienez, komunitate mailan, tokiko hedabideek honako mezu hau igortzen dute: gizon-emakumeak eta horiek ordezkatzen dituzten gizarte erakunde, mugimendu eta borrokak kriminalak, bake sozialaren hondatzaileak eta garapenaren kontrakoak dira. Estigma hori, bada, urraketari gehitzen zaion marka moral negatiboa da; eraso legitimatzeko funtzioa du eta errua alderantzikatzen eta defendatzaileei leporatzen dien fenomeno bat sortzen du. Testuinguru horretan, bada, defendatzaileen izen ona galarazten dute, giza eskubideen defentsa eta delinkuentzia lotuz. Hala, honako ideia hau sustatzen dute: giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak eta komunitateak inbertsioak eta lan aukerak oztopatzen dituzten gaizkileak dira.

Beraz, ekintza horiek lurraren aldeko edo inpunitatearen aurkako erakundearen eta borroken eremu sozial eta politikoa mugatzea eta giza eskubideak defendatzeko lanaren zilegitasuna zalantzan jartzea dute helburu. Hala, defendatzaileen arrisku egoera larriagotzen dute eta demokraziaren kalitatea bera zalantzan jartzen dute. Estigmatizazioaren kudeaketak gaitzera afektiboa eta soziala ekartzen die defendatzaileei; izan ere, askotan beren burua sozialki isolatuta ikusten dute eta beren ohorearen eta duintasunaren aurkako irainak edo erasoak pairatzen dituzte. Eraso horiek, bada, defendatzaileen borroka zalantzan jartzeko eta beren lana deslegitimatzeko helburua dute. Hortaz, defendatzaileen egoerak tentsio, estres edo inpaktu traumatikoko iturri berriak ditu, pairatzen dituzten mehatxuak, jazarpena edo indarkeria direla eta.

Giza eskubideen defentsaren kriminalizazioak eragina du bizitza komunalean, baita hori zuzenean pairatzen duten pertsonen segurtasun fisiko eta emozionalean. Hala, eragin zabalagoa dute buruzagien edo prozesu kolektiboen defendatzaileen kasuan. Adibidez, herri indigenen eskubideak defendatzen dituen agintari bat kriminalizatzen dutenean, efektu kriminalizatzailea agintari horrek ordezkatzen duen komunitate osora zabaltzen da. Era berean, buruzagien kontrako erasoak eragin kolektibo handia dute.

Esate baterako, 2015ean, Inpunitatearen aurkako Nazioarteko Plataformak jarraipena eman zien Guatemalan kriminalizatutako hiru defendatzailearen kasuei. Pertsona horiek baliabide naturalak, ingurumena, komunitateen bizimodua eta garapen eredu tradizionala kaltetzen zuten proiektuen aurkako gizarte erresistentzian parte hartzen zuten. Hala, hiru kasu horien dokumentazioak⁷ zenbait testigantza bildu zituen, kostu pertsonal, sozial eta ekonomiko izugarriak azaltzen zituztenak. Atxilotuen kasuan, haiek eta beren familiek karga ekonomiko handia hartu behar izan zuten beren gain, hain zuzen ere, 4 mila eta 6 mila euro artekoa. Gastu horien zati bat, bada, atxilotutako pertsonen oinarrizko premiak asetzerat bideratu ziren; hala nola, elikagaiak, sendagaiak, familien bidai luzeak atxilotuei bisita egiteko; baita estortsioak ordaintzera⁸ eta familiak mantentzera ere. Emakume askok -atxilotutako aitaren edo senarraren diru sarrerak gabe- tokiko lukurariei maileguak eskatu behar izan zituzten, interes tasa altukoak eta kitatu ezinekoak. Hortaz, elkarriketatutako zenbait pertsonak lurra galtzeko edo zorrak ezin ordaintzeko arriskuak kezkatzen zituela adierazi zuten⁹.

Era berean, atxilotutako pertsonen eta beren familien osasun fisikoa eta emozionala kaltetu zen, batez ere, ama eta emazteena. Izan ere, horiek depresioak, zorabialdiak, alditxarrak, tristura, bakardadea eta atxilotetaren ondorioz bizi izandako kezkarri, beldurrari eta ziurgabetasunari lotutako min fisikoak jasan zituzten. Bestalde, elkarriketatutako batzuek beren bizitzak ez zuela ezer balio sentitu zuten. Zenbait emakume haurdunek umea galdu zuten senarraren atxilotetak eragindako “sustoaren”¹⁰ eta tristuraren ondorioz. Beraz, genero ikuspegi batetik, azpimarratzekoa da, biktima gehienak gizonak badira ere, kriminalizazioaren ondorio gehienak emakumeek jasaten dituztela.

Guatemalan egin berri den ikerketa baten arabera, “[...] kriminalizazio ekintzen %26 giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeen kontra zuzentzen dira” (UDEFEQUA, 2017: 6). Era berean, Peru edo Ekuador bezalako herrialdeetan komunitate indigenetako emakumeak, gero eta gehiago, lurraldearen defentsaren buru bilakatzen ari dira erauzketa industriaren presioaren aurrean. Beraz, horien gainkarga mailak, ondorio psikologikoen eta familiarren gatazkek gora egin dute.

Hala, ondoko testigantza honek kriminalizazioak emakume defendatzaileen bizitzan eragiten duen sufrimendua erakusten du: “Etiketarik irteerako beldur naiz, baita etxe barruan ere (...) duela egun batzuk bidaiatzera animatu nintzen, zenbait paper konpondu behar nituelako (...) baina, egia esan, herritik kanpo atxilotua izateko arriskua dago. Eta batez ere, trauma, beldurra, ez dakit nola deitu; izan ere, nire neba eraman zuten. Egund hartan,

7 Erresistentzia baketsuan dauden La Puyako komunitateak (herriaren erdialdean), La Granadillas Mendiaren Babeserako Elkartea (ekialdean) eta Santa Cruz Barillaseko kriminalizatuak (ipar-mendebaldean).

8 Presoen arteko estortsioak ohikoak dira Guatemalako espetxeetan.

9 9 atxiloturi eta beren familia, ama eta emazteei 2014ko azaroan Santa Cruz Barillasen egindako elkarriketak.

10 Susto maien kulturaren aintzat hartutako patologia da. Hori pertsonaren egoera emozionalaren aldaketa bat da, gorputzaren eta arimaren arteko disoziazioa sortzen duena. Izan ere, gorputza eta arima bat dira maien mundu-ikuskeran eta elkarrekin mantendu behar dira osasuna mantentzeko.

ama eta biok hitz egiten ari ginen eta dei bat jaso genuen; bera atxilotu zutela esan ziguten, kartzelan zegoela. Orduz geroztik, kalera irteten naizen bakoitzean gauza bera gertatuko zaidanaren sentrazioa daukat (...). Batzuetan, semeari esaten diot: tinbrea jotzen badute, lehenengo zabaldu leihoa; ez duzu atea zabaldu behar. Horixe da daukadan sentrazioa, ezin zarela bakean bizi¹¹. Atxilotua izateko edo atentatuak sufritzeko arriskuak defendatzaile askoren bizitza markatzen du eta ondorio negatibo asko eragiten die horiei, beren gizarte rolari eta beren familiei.

11 2018ko abuztuan, Inpunitatearen aurkako Nazioarteko Plataformaren ikerketa baten markoan egindako elkarrizketa. Ikerketa hori editatzeko prozesuan dago.

6. Inpaktua eta autobabeserako neurriak

Giza eskubideen defendatzaileentzat, jasaten dituzten mehatxuek ondorio pertsonal eta familiar argiak dituzte. Inplikazio horiek, beraz, salaketetan edo babes neurrietan kontuan hartu behar dira. Hala, beldurraren kudeaketak, eguneroko bizitzaren eta errutinen aldaketak, lana edo egoera mehatxu testuingurura egokitu behar izateak eta segurtasunaren inguruko kezkek sortzen duen gairikarria afektiboak eta sozialak agerian jartzen dutenez, babesa premiazkoa da. Era berean, aldaketak onartzea eta prestakuntza eta alerta maila jakinak mantentzea garrantzitsua da, horiek eguneroko bizitza oztopatzen badute ere.

Aldi berean, -famiarekin, lagun minekin edo erakundearekin- zenbait efektu lantzea beharrezkoa da, esaterako, nor bere burua erruduntzat jotzea, familiarren banaketa, prekarietate ekonomikoa (Morán, 2017: 17) eta etxetik kanpoko jardueretan parte hartzeagatik emakumeen morala zalantzan jartzea. Horretarako, oinarritzko babes formetan (behatzeko gaitasuna, telefono bidezko komunikazioa maneiatzea, etab.), ahal den neurrian, elkarriketarako eta parte hartzeko espazioak sustatu behar dira. Hori, nolabait, are garrantzitsuagoa da mehatxuen zati bat familiari zuzentzen bazaio; izan ere, horrek tentsio eta beldur handiagoa eta erru sentimenduak sortzen dizkio kaltetuari.

Beraz, parte hartzeko ikerketa-ekintza prozesuetan oinarritutako ikerketa gehiago behar dugu, kriminalizazioak emakumeen bizitzan sortzen dituen ondorioak bistaratzen eta horien inguruan sakontzen dutenak. Hor dugu, esate baterako, Ruta Pacífica de las Mujeres de Colombia (Kolonbiako Emakumeen Irudi Baketsua) proiektua (Afonso eta Beristain, 2010), giza eskubideen urraketan biktima diren 932 emakumeren testigantza eta 9 kasu kolektibo biltzen dituenak.

Babes eta segurtasun neurrien kudeaketa defendatzaileen lanaren alderdi zentral bilakatu da. Honako hauek dira saihestu beharreko ohiko muturrak: alde batetik, segurtasuna bizitza osoaren alderdi zentralizat jotzea, zeren horrek edozein erabaki erabat baldintzatu eta arriskuaren kudeaketan jokabide obsesiboa sor baitezake; eta, bestetik, estres egoerara egokitzeko mekanismo gisa, arriskua saihesteko eta gutxieteko joera. Beraz, kasu

Giza eskubideen aldeko erakundeek barne dinamika zaintzea lan agendaren parte dela kontuan hartu behar dute. Izan ere, ekintzaren zentzua, barne koherentzia eta lanerako gaitasuna ere horren menpe daude.

horietan oinarritzko alderdi hauek kontuan hartu beharko ditugu: segurtasun neurrien tarteko maila, egoera aldizka ebaluatzea eta denborarekin lasaitzen diren neurri horiek sendotzea.

Azkenik, defendatzaileen erakundeek eta komunitateek beren prozesu kolektiboak zaintzen ikasi behar dute, batez ere, aipatu

diren indarkeria edo kriminalizazio testuinguruetan. Giza eskubideen aldeko erakundeek, bada, barne dinamika zaintzea lan agendaren parte dela kontuan hartu behar dute. Izan ere, ekintzaren zentzua, barne koherentzia eta lanerako gaitasuna ere horren menpe daude. Hauek dira mekanismo horietako batzuk:

- * Talde prozesuen komunikazio eta ebaluazio eremuak sortzea. Eremu horiek mugatuak izan ohi dira eta, maiz, egoera jasanezina izan arte, ez dira lehentasunezkoak jotzen.
- * Eztabaida eta bilera formalez gain, bestelako harreman bat sortzen laguntzen duten jardura informal edo sormenezkoak egitea.
- * Inpaktu bereziko momentuetan (estres momentuen ostean, esaterako, auzitegie-tan izan ondoren, porrotaren pertzepzioa nagusitzen den momentuetan, etab.) sentimenduak eta esperientziak partekatzea, elkar-laguntzaren ikuspegitik.
- * Ezkutuko sentimenduak onartzen eta aintzat hartzen laguntzea (esate baterako, erantzukizuna gain hartuz edo beldurra izateko eskubidea eta errudun sentitu gabe deskantsatzeko eskubidea onartuz).
- * Elkar-laguntzak estresa kudeatzen eta esperientziari zentzu handiagoa ematen lagun dezake (adibidez, dilema moralak ekartzen dituzten erabaki larrien aurrean, eztabaida eta erabakiak guztion artean hartzen lagunduz).
- * Beharrezkoa balitz, helburuak malgutzea eta lan egiteko edo erabakiak hartzeko modua berrantolatzea.

7. Giza eskubideen defendatzaileak laguntzean egindako ikaspenak

Gida honen hasieran azaltzen den bezala, azken 20 urteetan, giza eskubideen defendatzaileen lana aintzat hartzeaz gain, hainbat neurri, gidalerro eta gomendio garatu dira nazioartean defendatzaileak babesteko helburuz. Era berean, nazio mailan ere, ildo beretik doazen politikak garatu dituzte. Aitzitik, azken urteetan gizarte zibileko erakunde eta pertsona defendatzaileek adierazi dutenez, hartutako neurriak ez dira nahikoak. Hortaz, arazoak modu estrukturalen lantzea eskatzen ari dira; izan ere, botere taldeek eskubideen defendatzaileen kontra sustatzen dituzten mekanismoen oinarrian daude arazo horiek.

Hala, giro gaitzaile eta lagungarri hori, funtsean, demokrazia eta giza eskubideak eta funtsezko askatasunak errespetatzeko giro bat da. Horretan, eskubideak sustatzen eta defendatzen dituzten pertsonak ez dira horregatik jazarriak izango; aitzitik, Estatuak bakerako eta Zuzenbide Estatuak sendotzeko funtsezkoak diren pertsona eta kolektibo horiek aintzat hartuko eta babestuko dituzte. Kontua ez da, bakarrik, Estatuak babesteko betebeharrak hori bete dezaten, baizik eta, horrez gain, giza eskubideen erabilera errespeta eta berma dezaten, funtsezko eskubideak eta askatasunak defendatzeko eskubidea barne.

Hori gertatzen ez den bitartean, testuinguru horietan, autobabeserako eta autozainketarako neurriak funtsezko alderdiak dira defendatzaileentzat eta giza eskubideen aldeko erakundeentzat.

8. Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak babesteko gomendioak

Michel Frost Errelatore Bereziak NBEren Batzar Orokorrean aurkeztu zuen txostenean esaten duen bezala: “Azken urteetan, giza eskubideen defendatzaileak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak ezarritako babesa giza duintasunaren aurkako mehatxu berrietara ere zabaltzeko mobilizatu dira. Hala, eskubideak etxeko eremuan eta kolektibitatean ere babestuak izatearen alde egiten dute, emakumearen kontrako indarkeriaren aurka borrokatuz. Era berean, enpresa multinazionalak gizon-emakumeen eskubideak urratzen dituzten beren jardueren eta ez-egiteen erantzule moral eta juridikoak izatearen alde agertzen dira” (A/69/159, 49. paragrafoa). Eta, giza eskubideen defentsarako giro gaitzailea sortzea guztion ardurua bada ere, ezin dugu ahaztu, nolabait, Estatuak direla giza eskubideen erabilera errespetatu, babestu eta bermatu behar dutenak. Beraz, zer egin dezakegu nazioarteko elkartasunetik eta betebeharrak horrek beren mugak gainditzen dituela ulertzen duten Estatuetatik. Jarraian, eztabaidarako zenbait ideia.

8.1. GKEen eta nazioarteko elkartasunaren papera

GKEen paperari dagokionez, NBEko Giza Eskubideen Kontseiluko Aholku Batzordearen arabera GKEek “giza eskubideak babesteko jarduerak areagotzeko uzkur diren gobernuak bultzatu behar dituzte, giza eskubideen aldeko nazioarteko itunak berrets ditzaten; eta berrespen horren ostean, itun horiek betetzen ari diren ebaluatzen ere lagundu beharko diete” (A/HRC/39/58, 34. paragrafoa). Aholku Kontseiluak honako erakunde hauek aipatzen ditu: Europako Juristen Nazioarteko Batzordea (ICJ), Amerikako Justiziaren eta Nazioarteko Zuzenbidearen aldeko Zentroa (CEJIL), Afrikako *African Centre for Democracy and Human Rights Studies* eta Giza eskubideen eta Garapenaren aldeko Asiako Foroa. Kontinente guztietan ehunka erakunde auzitan dabilta giza eskubideak defendatzeko eskubidearen alde. Beren herrialdean justiziarako sarbidea ez duten defendatzaileek asko estimatzen dute erakunde horiek epai prozesuetan ematen duten laguntza.

Beste alde batetik, nazioartean eragiteak ere giza eskubideen defendatzaile diren kolektiboak eta pertsonak babesten lagun dezake; baina horrek, nolabait, defendatzaileek gaitasun teorikoak eta praktikoak garatzea eskatzen du. Beren egoera ahulagatik, nazioarteko eremuetan lehentasuna eman behar zaie landa eremuetako oinarriko erakundeei, gizarte mugimenduei eta defendatzaileei, batez ere, emakumeei. Zentzu horretan, aldizka giza eskubideen defendatzaileen eta misio diplomatikoetako buruen artean elkarrizketa sistematikoak egitea praktika on bat da¹². Honako hauek izango dira,

12 Adibidez, 2013 eta 2015 artean Guatemalan Acoguatek, PBIk eta Guatemalako Inpunitatearen aurkako Nazioarteko Plataformak hiru hilez behin lagundutako topaketak ditugu.

bada, elkarrizketa horien helburuak: giza eskubideek tokian duten egoera aztertzea, defendatzaileentzako arrisku iturriak identifikatzea, estatuaren erantzuna baloratzea eta hori lantzeko agertokiak eta proposamenak sortzea.

8.2. Giza Eskubideen Erakunde Nazionalen papera

Instituzio horiek izen desberdinak izaten dituzte, hala nola, Herriaren Defendatzaileak, Giza Eskubideen Prokuradoretzak, Ombudsman bulegoak, etab. Hala, Pariseko Printzipioen arabera¹³, Giza Eskubideen Erakunde Nazionalak (GEEN) honako atribuzio hauek dituzte: “Nazio Batuekin eta giza eskubideak sustatzeko eta babesteko arloetan eskudunak diren Nazio Batuen gainontzeko organismoekin, eskualde mailako instituzioekin eta beste herrialde batzuetako instituzioekin lan egitea. Era berean, GEENek “giza eskubideak sustatzen eta babesten dituzten gobernuz kanpoko erakundeekin harremanak sortu” behar dituzte.

Printzipio horiek, bada, 1998ko defendatzaileei buruzko Deklarazioaren aurrekoak dira. Hala ere, Deklarazioa kontuan hartuz, GEENek honako betebeharrak dituztela interpreta daiteke: giza eskubideak defendatzen dituzten pertsona eta kolektiboekin harremanak sortzea, giza eskubideen sustapenean eta babesean nazioarteko lankidetzaren aliatuak izatea, marko arauemaile egokia edukitzea eta maila altuko borondate politikoa izatea.

Beraz, Estatuak behar adina baliabide eman behar dizkiete GEENei. Dena den, Hego Hemisferioko hainbat herrialdetan, horietako askok nazioarteko lankidetzatik etorritako funtsak kudeatu behar izan dituzte beren jarduera eremua zabaldu eta defendatzaileen laguntza eskaerei eraginkortasunez erantzun ahal izateko. Hori gertatzen denean, nazioarteko kooperanteek GEENei zuzendutako finantza lankidetzarekin batera giza eskubideen defendatzaileen balorazioak eta gomendioak entzuteko eremuak sortu behar dituzte, Pariseko Printzipioen inplementazioan oinarrituta.

GEENen alderdi zentrala Estatuaren aurrean duten papera da; izan ere, horiek “agintariei aholkua emateko funtzio garrantzitsu bat bete dezakete, nazio mailako legeak eta praktikak eta giza eskubideen nazioarteko tresnek sortzen dituzten betebeharrak harmonizatzeari dagokionez” (A/RES/69/168: 2). Horrek paper proaktiboago bat eskatzen du, bai defendatzaileak babesteko barne arauak eta politikak garatzean, bai horien lanerako giro gaitzailea sortzeko, gizon eta emakumeen artean ikuspegi bereziak erabiliz.

13 1992ko martxoan, NBEko Giza Eskubideen Batzordeak Pariseko Printzipioak onartu zituen, Batzar Nagusiak A/RES/48/134 Ebazpenaren bitartez berretsiak. Hemen eskuragarri: <www.un.org/ga/search/view_doc.asp?symbol=A/RES/48/134&Lang=S>.

8.3. Eskualdeko Sistemen papera Sistema Unibertsalarekin elkarlanean

Giza Eskubideen Kontseiluaren Aholku Batzordearen arabera (A/HRC/39/58, 38. paragrafoa), giza eskubideen eskualdeko mekanismoen arrakasta elkarrekin lotutako eta elkarren menpeko hiru faktore hauen menpe dago; konpromisoa, prozedura egokiak eta funtsezko beste eragile batzuekiko lankidetzari. Hala, giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak funtsezko ekarpena egin diote Eskualdeko Sistemen eta Sistema Unibertsalaren arteko lankidetzari. Maiz, horiek, beren salaketa eta eskaeren bitartez, sistema bien arteko harremanak ezartzen dituzte; baina hori, aldi berean, errepresaliak jasotzeko arriskua handitzen du.

2013ko apirilean, Giza Eskubideen Kontseiluak berretsi egin zuen “pertsona orok, banaka zein kolektiboki, nazioarteko organoetarako sarbide librea eta horiekin komunikazioa izateko duten eskubidea, batez ere, Nazio Batuei (...) eta giza eskubideen eskualdeko mekanismoei dagokienez”. Era berean, horiekin lan egiten duten, lan egin duten edo lan egin nahi duten horien aurkako larderia edo errepresalia ekintzak ez egitera bultzatzen ditu Estatuak eta, are gehiago, horiei babes egokia ematera deitzen die (A/HRC/RES/22/6, 13. eta 14a paragrafoak). Urte bereko urrian, Kontseiluak lehen esandakoari eutsi zion (A/HRC/RES/24/24, 1. eta 3. paragrafoak) eta Giza Eskubideen Nazio Batuen Goi Mandatariarekin (OHCHR) batera Nazio Batuen Sistema osoko goi koordinatzaile bat izendatzea eskatu zion Idazkari Nagusiari, giza eskubideen arloan Nazio Batuekin lan egiten dutenen kontrako errepresalia eta larderia ekintzen prebentzioa sustatzeko ardura izango zuena (Ibid., 7. paragrafoa). 2016ko irailean, Andrew Gilmour Nazio Batuekin lan egiten duten giza eskubideen defendatzaileen kontrako errepresaliei aurre egiten laguntzeko puntu fokal izendatu zuten.

Hala, defendatzaileak babestearen arloan jurisprudentzia eta praktika onak gero eta gehiago partekatzen dira eta Giza Eskubideen Kontseiluaren Prozedura Berezien¹⁴, OHCHRren Bulegoaren eta Giza Eskubideen Eskualdeko Sistemen arteko lankidetzari hobetu da. Dena den, ez da lortu errepresaliak gutxitzeko eragin kolektiboa sortzea.

Gainera, defendatzaileei buruzko NBEko Errelatoreen eta Eskualdeko Sistemen artean sortutako lankidetzaz gain, errepresaliei buruzko NBEko puntu fokalaren eta Sistema horien arteko lankidetzari instituzionalizatzea komeni da, sistema horietara jotzen duten defendatzaileak modu eraginkorrago batean babesteko helburuz.

14 Adibidez, Emakumeen aurkako Indarkeriari eta horren kausei eta ondorioei buruzko Errelatore Bereziak eta NBEko Giza Eskubideen Kontseiluko Lantaldeko kide batek Giza Eskubideen Amerika arteko Batzordeak (GEAB) 2018ko urrian Coloradoko Boulder herrian (AEB) egindako 169. saioaldiko bi entzunalditan parte hartu zuten.

8.4. Europar Batasunaren papera: zer espero dute giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak eta komunitateak?

Europar Batasuna-GKE Eskubideen 19. Foroaren¹⁵ hasierako hitzaldian Federica Mogherini Europar Batasuneko Ordezkarik Gorenak esandakoaren arabera, giza eskubideen auzi edo urraketa bat non eman, han izango da EB. Mogherinik defendatzaileen ikuspegia partekatzen duela esan zuen eta horiek nazioartean babesteko ekintzak egiten dituela. Izan ere, giza eskubideen eta funtsezko eskubideen defentsa Europar Batasunaren ardurarik bat da, Europar Batasunaren Itunaren 6. artikulua arabera (Europar Batasuna: 2007/C 306/01). Hala, defendatzaileen gaineko gidalerroen arabera, horrek giza eskubideak defendatzeko eskubidea ere barne hartzen du.

Hala ere, borondate adierazpen horiez harago, defendatzaileentzat erronka nagusiak hori praktikan jartzea eta EBren politiken arteko koherentzia dira: Estatu kideek -presentzia duten herrialde guztietan- ezarri beharko lituzkete giza eskubideen defendatzaileak babesteko gidalerroak betetzearen jarraipen, berrikusketa eta egiaztatze mekanismoak. Horiek betetzeak ez du txandako funtzionarioaren irizpidearen edo Estatu eta enpresen arteko harremanen alderdi komertzialen menpe egon behar; are gutxiago onartu beharko litzateke arduradunak aldatzean aurrerapausoak egindako eremuetan atzerapausoak ematea. Hala, EBk berezko barne mekanismoak garatu beharko lituzke hori gertatuko ez dela bermatzeko. Gainera, kexuen eta salaketen karga giza eskubideak egoera gogorretan defendatzen dituzten pertsonen gain uztea saihestu beharko luke.

Era berean, Europar Batasunak bermatu beharko luke -Michel Frost Errelatore bereziak nazioarteko erkidegoari ingurumenaren defendatzaileen inguruan gomendatu dion bezalabai garapenerako laguntzan bai mehatxatutako defendatzaileak dituen herrialderen bat partaide duen edozein merkataritza akordiotan pertsona horien kontrako urraketak prebenitzeko neurriak eta horiek ikertzeko eta zuzentzeko mekanismoak txertatzen direla (A/71/281, 97: c eta d paragrafoak).

8.5. Defendatzaileak babesteko lanak

Nazio mailako edo nazioarteko mekanismoez eta horiek giza eskubideei buruzko legeen, hitzarmenen eta itunen markoan duten funtzioez gain, zer diote defendatzaileek? Bada, ondoko proposamen hauek Latinoamerikako komunitateen giza eskubideak defendatzen dituzten hainbat gizonek eta emakumek egin dituzte:

15 "Human rights under threat: Exploring new approaches in a challenging global context" izeneko foroa 2017ko abenduaren 5ean eta 6an egin zuten Bruselan. Horri egindako aipamenak gida honen egileetako batek foroan hartutako oharretan oinarritzen dira.

- a) Giza eskubideen eta giza eskubideak defendatzeko eskubidearen eta beharraren egoeraren behaketa.

“Prebentzioa babesaren fase garrantzitsuena dela uler daiteke, izan ere, horren oinarriak ezartzen ditu, kolektiboak krisi egoerara heltzea saihesten saiatzen da eta bera da defendatzaileek beren lana lasaitasunez egitea ahalbidetu behar duena” (CEAR-Euskadi, 2018: 29).

Behaketak bada, prebentzioari lagundu behar dio, defendatzaileen ikuspegitik; modu sistematikoan egin behar da, defendatzaileekin eta batez ere arrisku egoeran dauden horiekin hitz eginez. Hori da, adibidez, landa eremuko komunitateetan edo gizarte talde estigmatizatuetan bizi direnen kasua. Elkarrizketa horrek, bada, misio diplomatikoek edo behaketa misioek giza eskubideetan adituak diren espezialistak edukitzea eskatzen du, giza eskubideen defendatzaileen ikuspuntuak entzuteko gai direnak. Horrela, kultura eta genero aniztasun irizpideak erabiliz, eremu egokiak sortuko dituzte.

Era berean, beharrezkoa da Estatuak giza eskubideen arloko nazioarteko estandarrak eta konpromisoak betetzearen kalitatea behatzeko adierazleak izatea. Gauza bera gertatzen da beste eragile batzuekin (esaterako, enpresek edo inbertitzaileek ere giza eskubideak errespetatu behar dituztela mahaigaineratu da nazioartean). Kasu batzuetan, bada, pertsona eta komunitate defendatzaileek enbaxadoreek nazioarteko behaketan lekuko gisa parte hartzea espero dute, defendatzaileen eta agintarien arteko eztabaida eremuetan.

- b) Defendatzaileentzako eta defendatzaile kriminalizatuentzako laguntza juridikoa.

Laguntzak horrek ondoko hauek hartzen ditu: defendatzaileen kontrako epai prozesuetan laguntzea, laguntza juridikoa ordaintzeko edo preso dauden defendatzaileei bisita egiteko diru laguntza (aldez aurretik ekintza horiek presoan segurtasunean izan dezaketen ondorioak kasuz kasu aztertuz) eta giza eskubideak defendatzean preso hartutako pertsonen familiei laguntzea.

Defendatzaileek asko baloratzen dituzte NBEk dituen giza eskubideen ohiko eta ezohiko mekanismoak, batez ere, Torturaren Aurkako Komitea, Giza Eskubideen Defendatzaileei buruzko Errelatoretza Berezia eta Atxiloketa Arbitrarioei buruzko Lantaldea. Sarritan, mekanismo horietara jo ahal izateko laguntza espezializatua behar da.

Behaketak, prebentzioari lagundu behar dio defendatzaileen ikuspegitik; modu sistematikoan egin behar da, defendatzaileekin eta batez ere arrisku egoeran dauden horiekin hitz eginez. Hori da, adibidez, landa eremuko komunitateetan edo gizarte talde estigmatizatuetan bizi direnen kasua.

c) Dimentsio politikoa eta psikosoziala.

Giza eskubideen defentsa lanaren aurkako mehatxuak politikoak eta/edo ekonomikoak izaten dira eta intentzio eta arduradun jakinak dituzte. Beraz, nazio mailako eta nazioarteko laguntzak defendatzaileak mehatxuen aurrean babesten dituen laguntza politikoa eman behar du. Laguntza horrek, nolabait, erakundeen legitimitatea babestu eta erasoaren kostu politikoa handitu behar ditu; izan ere, defendatzaileen babesaz eta beren lana burutzeko baldintzen nazioarteko behaketaz arduratu behar du. Hala, enpresa transnazionalen kasuan, babesaren edo defendatzaileen kontrako erasoaren erantzukizunak bistaratu behar dira, bai enpresa horien jardura ematen den herrialdeetan, bai beren jatorrizko herrialdeetan.

Horrez gain, laguntzak dimentsio psikosozial bat du. Izan ere, mehatxuak eta erasoak estigmatizazioko eta duintasunaren kontrako erasoaren testuinguru batean ematen dira, kostu pertsonal eta emozional handi batekin. Beraz, laguntza psikosoziala eta emozionala funtsezkoa da giza eskubideen defentsa sostengatzeko eta denboran zehar norberaren eta bere familiaren bizitzan edota erakundeetan eta lidergoan duen eragina kontuan hartu behar du. Hala, lankidetzak eta laguntza proiektuek aintzat hartu behar dute dimentsio hori, defendatzaileek modu indibidualean bizi izaten dituzten presioen ondorioei aurre egitearren. Erakundeek eta defendatzaileek, beren agendan autozaintza lana eta estresari aurre egiteko estrategiak txertatzea eskatzen du horrek, baita beren eremua babestea, erakundeetan elkar-laguntza sustatzea eta beren lanari diziplina arteko ikuspegi batetik heltzea ere.

d) Estatuaren, hedabideen eta gizartearen aurrean babes publikoa eta nabaria izatea.

Estatuko agintariei honako hau gogorarazi beharko diegu: giza eskubideen arloan hartutako konpromisoak; defendatzaileentzat lagungarria den giroa errespetatu, babestu eta bermatu behar dutela; eta defendatzaileek aliatu nazional zein internazionalen laguntza izateko eskubidea dutela. Defendatzaileei laguntzeko ikuspegia herrialdeei buruzko txostenetan edo problematikan sartu behar da, kasuek duten garrantzia eta defendatzaileen aldeko jarrera adieraziz.

e) Giza eskubideen defendatzaileak babesteko gidalerroak inplementatzea.

Lankidetzak proiektuek edo giza eskubideen misioek gidalerro horien inplementazioa eta behaketa txertatu beharko lukete beraien lanean, egoera ahulenean dauden horiei lehenetsuna emanez. Hala, misio horiek defendatzaileekin dituzten elkarriketei buruzko balorazioak eta balorazio horiek beren jardura politikoetan nola txertatzen dituzten defendatzaileekin berekin partekatzea espero da.

- f) Laguntza teknikoa emaitzen eta inplementazioaren monitorizazioa egiten duten Estatuentzat.

Gobernu arteko edo NBEko lankidetzaren programa askok Estatuentzako laguntza teknikoa barne hartzen dute. Jarduera horiek neurrien inplementazioaren monitorizazio eta jarraipen mekanismoak izan behar dituzte. Izan ere, maiz, jarraipen jarduerarik ez egoteak lankidetzaren porrota ekar dezake, batez ere, gida honetan azaldu diren inpunitateko testuinguruetan. Estatuentzako laguntzak, besteak beste, defendatzaile bakoitzaren baldintzen arabera babes politikak, legeak eta programak garatzeko laguntza eduki beharko luke. Neurri horien artean, bada, Estatuak enpresen jardueraren gainean dagokien paper zuzentzailea garatzeko aholkularitza egon beharko litzateke, enpresa horien jarduerak giza eskubideak eta funtsezko askatasunak eta eskubide eta askatasun horiek defendatzen dituzten pertsonak errespetatzen dituztela bermatze aldera.

- g) Zero tolerantzia defendatzaileen aurkako eraso eta krimenen inpunitateari.

Behin eta berriro aipatu da zigorgabetasuna defendatzaileen aurkako erasoari arnasa ematen dien faktore nagusietako bat dela. Hala, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak (EESK) defendatzen dituzten pertsonak arreta berezia merezi dute. 2016an, EESKen Komiteak berretsi zuenez, “ nazioarteko erkidegoak modu ekitatibo, bidezko eta inpartzial batean tratatu behar ditu giza eskubideen defendatzaile guztiak, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak defendatzen dituzten horiek barne”. Era berean, komiteak “giza eskubideen defendatzaileen aurkako indarkeria edo mehatxu modu guztiak ikertzea eta zigortzea” erabat garrantzitsua zela azpimarratu zuen (E/C.12/2016/2, 7. eta 8d paragrafoak).

Izan ere, Giza Eskubideen Amerika arteko Auzitegiak hainbat epaitan aipatu duen bezala, inpunitatea ez da zigorrik eza bakarrik; aitzitik eta giza eskubideen urraketen ikerketak desbideratzen, blokeatzen edo desitxuratzen dituen sistema bat da. Hala, ustelkeriaren, defendatzaileen kontrako indarkeriaren eta lurraldea edo biztanleak kontrolatzeko proiektuen arteko harremanak inpunitateaz elikatzen dira, horiek baitira, hain zuzen ere, inpunitatea mantentzen dutenak. Beraz, testuinguru horietan funtsezkoa da inpunitatea haustea eta benetako justizia, aintzatespena era konponketa lortzea.

Era berean, defendatzaileak erasoaren biktima direnean horiei zentraltasuna eman behar zaie, genero eta kultura ikuspegia duten espazio egokiak sortuz. Beraz, garrantzitsua da defendatzaileei entzutea eta komunitateek justizia, laguntza psikosozialeko eta autozaintza bereiziko ekintzak sustatzeko baliabideak izatea; baita hiriburuetatik urrun dauden komunitateetatik datozen defendatzaileei sarbidea bermatzea, beren hizkuntza eta kultura errespetatuz.

h) Sare lana babestea eta sustatzea.

Tokiko, nazioko eta nazioarteko eremuetan giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak eta kolektiboak sortzen dituzten sareak sendotzea beharrezkoa da; izan ere, sare horiek elkartasun espazioak dira, ez daudela bakarrik sentiarazten diete, beren salaketen berri ematen dute eta babesa sustatzen dute. Gainera, ideiak, hausnarketak eta ikaspenak partekatzea eta praktika onak eta txarrak identifikatzea sustatzen dute. Maiz, sareetan ematen diren trukeek munduko hainbat eskualdetan errepikatzen diren patroiak identifikatzen laguntzen dute.

Baliabide mugatuak dituzten testuinguruetan, sare lanak defendatzaileek dituzten arazo eta erronkei aurre egiteko ahalmena eskaintzen du. Hortaz, CEAR-Euskadiren txostenak adierazten duen bezala (2018:32), defendatzaileek asko baloratzen dute sare lan hori. Izan ere, defendatzaileen bizitza arrisku larrian dagoenean, laguntza sareek eremu seguruak kokatzen eta jatorrizko lekuetara itzultzen lagun diezaiekete.

Bibliografia

- African Commission on Human and Peoples' Rights (ACHPR) (2004), "Resolution on the Protection of Human Rights Defenders In Africa", 35th Ordinary Session, 21st May to 4th June, Banjul, The Gambia. Hemen: <www.achpr.org/sessions/35th/resolutions/69> (2018ko irailaren 25ean kontsultatua).
- Afonso, Carla eta Beristain, Carlos Martín (2010), *Memoria para la vida. Una comisión de la verdad desde las mujeres para Colombia*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Hegoa Institutua, Bilbo. Hemen: <www.rutapacifica.org.co/descargas/comisionverdad/memoriaparavida.pdf> (2018ko azaroaren 5ean kontsultatua).
- CEAR-Euskadi (2018), *Proteger a quien defiende. Diagnóstico sobre necesidades de protección de personas defensoras de derechos humanos*, Comisión de Ayuda al Refugiado de Euskadi, Bilbo, 44. orr.
- Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Komitea (2017), "Defensores de los derechos humanos y derechos económicos, sociales y culturales", Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Komitearen E/C.12/2016/2 Deklarazioa, martxoak 29. Hemen: <<http://undocs.org/es/E/C.12/2016/2>> (2018ko urriaren 29an kontsultatua).
- ESLAko Erakunde Demokratikoen eta Giza Eskubideen Bulegoa (ESLA/EDGEB) (2016), *Directrices sobre la Protección de los Defensores de los derechos humanos*, Varsovia. Hemen: <www.osce.org/es/odihr/230591?download=true> (2018ko apirilaren 8an kontsultatua).
- Europako Segurtasunari eta Lankidetzari buruzko Konferentzia (ESLK) (1975). "Acta Final". Helsinki. Hemen: <www.osce.org/es/mc/39506?download=true> (2018ko ekainaren 8an kontsultatua).
- Europar Batasuna (2007), "Tratado de Lisboa por el que se modifican el Tratado de la Unión Europea y del Tratado Constitutivo de la Comunidad Europea", *Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala* 2007/C 306/01, abenduaren 17koa. Hemen: <www.ecb.europa.eu/ecb/legal/pdf/es_lisbon_treaty.pdf> (2018ko irailaren 15ean kontsultatua).
- Gentile, María Beatriz (2013), "Los 'efectos' del terror: Argentina 1976-2003". *Tesis Psicológica*, 8 (urtarril-ekaina), 16-31. Hemen: <www.redalyc.org/html/1390/139029198003> (2018ko irailaren 25ean kontsultatua).
- Giza Eskubideen Amerika arteko Gortea (2009), *Caso Kawas Fernández vs. Honduras*. Fondo, Reparaciones y Costas. Sentencia, 3 de abril. Serie C No. 196. Hemen: <www.corteidh.or.cr/docs/casos/articulos/seriec_196_esp.pdf> (2018ko azaroaren 5ean kontsultatua).
- Giza Eskubideen Amerika arteko Gortea (2014), *Caso defensor de derechos humanos y otros vs. Guatemala*. Fondo, Reparaciones y Costas. Sentencia, 28 de agosto. Serie C No. 283. Hemen: <www.corteidh.or.cr/docs/casos/articulos/seriec_283_esp.pdf> (2018ko azaroaren 5ean kontsultatua).

- Giza Eskubideen Amerika arteko Komisia (CIDH) (2003), “Observaciones preliminares de la Comisión Interamericana de Derechos Humanos al culminar su visita a Guatemala”, martxoak 19. Hemen: <www.oas.org/es/centro_noticias/comunicado_prensa.asp?sCodigo=CIDH-08-03> (2018ko martxoaren 30ean kontsultatua).
- Giza Eskubideen Defendatzaileen Babeserako Unitatea - Guatemala (2017), *Informe criminalización en Guatemala. Análisis de situación 2012-2017*, Guatemala, azaroa. Hemen: <<http://udefegua.org/wp-content/uploads/2017/12/Informe-Criminalizacio%CC%81n-Guatemala-2012-2017-FINAL3.pdf>> (2018ko irailaren 15ean kontsultatua).
- Giza Eskubideen Kontseilua (2018), “Informe del Comité Asesor del Consejo de Derechos Humanos”, A/HRC/39/58, iraila. Hemen: <<http://undocs.org/es/A/HRC/39/58>> (2018ko irailaren 16an kontsultatua).
- Giza Eskubideen Kontseilua (2018), “Informe de la Relatora Especial sobre los derechos de los pueblos indígenas”, A/HRC/39/17, iraila. Hemen: <<http://undocs.org/es/A/HRC/39/17>> (2018ko irailaren 16an kontsultatua).
- Giza Eskubideen Kontseilua (2014), “Informe del Relator Especial sobre los derechos a la libertad de reunión pacífica y de asociación, Maina Kiai”, A/HRC/26/29, apirila. Hemen: <<http://undocs.org/es/A/HRC/26/29>> (2018ko irailaren 25ean kontsultatua).
- Morán, Lucía (2017), “Avaricia, misoginia, racismo y poder penal. Criminalización de mujeres Mayas”, Guatemala, argitaratu gabeko bertsioa.
- NAZIO BATUEN BATZAR OROKORRA (2002), “Informe del Secretario General sobre defensores de los derechos humanos”, A/55/292, abuztua. Hemen: <<https://undocs.org/es/A/55/292>> (2018ko irailaren 19an kontsultatua).
- NAZIO BATUEN BATZAR OROKORRA (2011), “Defensores de los derechos humanos. Nota del Secretario General”, A/66/203, uztaila. Hemen: <<https://undocs.org/es/A/66/203>> (2018ko irailaren 24an kontsultatua).
- NAZIO BATUEN BATZAR OROKORRA (2013), “Resolución aprobada por el Consejo de Derechos Humanos 22/6. Protección de los defensores de los derechos humanos”, A/HRC/RES/22/6, apirila. Hemen: <<http://undocs.org/es/A/HRC/RES/22/6>> (2018ko azaroaren 18an kontsultatua).
- NAZIO BATUEN BATZAR OROKORRA (2013), “Resolución aprobada por el Consejo de Derechos Humanos 24/24. Cooperación con las Naciones Unidas, sus representantes y mecanismos en la esfera de los derechos humanos”, A/HRC/RES/24/24, urria. Hemen: <<http://undocs.org/es/A/HRC/RES/24/24>> (2018ko azaroaren 18an kontsultatua).
- NAZIO BATUEN BATZAR OROKORRA (2014), “Informe del Secretario General sobre defensores de los derechos humanos”, A/69/259, abuztua. Hemen: <<https://undocs.org/es/A/69/259>> (2018ko irailaren 24an kontsultatua).
- NAZIO BATUEN BATZAR OROKORRA (2015), “El papel de los ombudsmen, mediadores y demás instituciones nacionales de derechos humanos en la promoción y protección de los derechos humanos”, 2014ko abenduaren 18an Batzar Nagusiak onartutako ebazpena, A/RES/69/168. Hemen: <<http://undocs.org/es/A/res/69/168>> (2018ko irailaren 25ean kontsultatua).

NAZIO BATUEN BATZAR OROKORRA (2016), “Informe del Secretario General sobre defensores de los derechos humanos”, A/71/281, abuztua. Hemen: <<https://undocs.org/es/A/71/281>> (2018ko irailaren 24an kontsultatua).

OEA/Ser.L/V/II. Doc. 5 rev.1, 7 2006ko martxoa.

OEA/Ser.L/V/II. Doc. 66, 31 2011ko abendua.

Solano, Luis (2015), “Under Siege Peaceful Resistance to Tahoe Resources and Militarization in Guatemala”, *International Platform against Impunity, Mining Watch and NISGUA*, azaroa. Hemen: <<https://miningwatch.ca/sites/default/files/solano-underseigereport2015-11-10.pdf>> (2018ko irailaren 25ean kontsultatua).

Suitzako Kanpo Arazoetarako Departamendu Federala (DFAE) (2014), *Directrices suizas sobre la protección de los defensores de los derechos humanos*, Berna. Hemen: <<http://imumi.org/attachments/2014/directrices-suizas-proteccion-defensoras-ddhh.pdf>> (2018ko maiatzaren 19an kontsultatua).

Norvegiako Kanpo Harremanetarako Ministerioa (2010), *Los esfuerzos de Noruega en apoyo de los defensores de los derechos humanos. Guía para el Servicio Exterior*. Oslo. Hemen: <www.regjeringen.no/contentassets/b7384abb48db487885e216bf53d30a3c/mr_spansk_2011.pdf> (2018ko uztailaren 14an kontsultatua).